

Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

09



"Urak eramandako bideak"



aisialde euskara



kultura

Ioramendi



• Korueta 1979, obrak aurrera eta etxeak zutik

Burutu ezinezkoa”

Lekuko izenak galtzen doazela jakina da. Beraien erabilerak egunerokoa izateari utzi zionetik, ez daukate zer eginik irauteko. Baina bada ez bada, ahal dugun adinean batzuk jasota utzi nahi ditugu.

Dena dela, izen bakar batzuk irauten dute. Denen ahotan jarri dira, eta toki zehatz baten izena izatetik eremu askoz zabalago bati izena ematera pasatu dira nahi gabe, nahiz eta, eremu zabal horretako gainontzeko beste izen guztiak ahaztu bidean jartzen dituen. Eta zer esanik ez, eremu zabal hori, lurra irentsi balu bezala, betirako desagertuta gelditu bada. Ikusten ez dena, zailagoa da eta gogoratzea.

Horixe gertatu da **Aretxabaletan** ere **Urkulu** izenarekin. Baserri bakar baten izena izatetik, Paraje zabal baten izena izatera pasatu da, edozeinen ustetan gaur egun urtegia eta bere inguruko bazter guztiak izendatzen bait ditu.

Ibilaldi honen helburua hauxe izango da ba. **Urkulu** izenak, ala beharrez itzalean utzi dituen paraje eta beste hainbeste izen gogora ekartzea. Horretarako urtegitiko ur hertzetan ibiliko gara ia ia hankak bustita, baina, imajinazio apur batekin egun batetan urak ito zituen bide horietan zehar pertsonak eta etxeak ikusiko ditugu, iturriak eta estratak eta batek daki zer gehiago.

Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen mapa azken orrialdean aurkituko duzu, bidean errezagoko aurki dezazun.



01

Ibilaldiaren hasiera



Otalorako aparkalekuan hasiko dugu gure garuko ibilaldia eta bide gorriari jarraituta, urtegi aldera egingo dugu. Bidean **Sargarai**ko oinezkoen zubitik pasatuko gara. Hau guztiz berria da, baina bertatik pasatzerakoan bere azpian karobi bat eta ur askak ikusiko ditugu.

02

Karobia



Hemen karea egiteko Matikoakoak eta **Sargarai**koak, idi gurdiekin garraiatuta kare harria **Errekabiarte** buruko **Kantera zahar**retik ekartzen zuten, eta hemen egun batzuetako lan neketsuaren ondoren lortutako karea, soroak ongarrizteko gehien bat eta baserriko horma zaharrak urtean behin zuritzeko erabiltzen zuten.(ikusi 2. Ibilbide historikoa)

Ur aska berriz etxe barruan ura ez zegoen garaikoa dela zer esanik ez dago. Ur negarra edo iturri antza zegoen lekuetan ura biltzeko egiten ziren askak, baldea bete, arropak garbitu, behiek edan edo beste edozein erabileratarako. Aska honek bi pujeta harri ere izan zituen.



• Karea, kareharria erre ondoren...



• Sargaraiako karobia

Sargaraizabalen aurrera **Matikoa** etxe aurretik pasatuko gara, bertan trilladora makina gordetzeko eraiki ziren eraikinetako bata dago, horrelakoak **Etxaluze** edo **Ardantza** parean ere ikusi ditzazkegu.

Abadetxe ondotik, **Sakristauena** etxe azpitik **Azatzako** elizaren atzealdera joko dugu.

Bertan dago kanposantua eta **Sorginmendi** izeneko parajea. Inguru honetan izango zen izen bereko etxe bat ere (ikusi 8. ibilaldi historikoa).

1934. urtean **Korueta**ra bide berria eraiki zenean hasi eta geroko etxegintzak sasoi bateko itxura guztiz aldatuta dauka, baina ukatu ezinezkoa da tontortxo bat dela. San Juanetako erromeria bertan eginten zen “agarrauek” dantzatzen hasi ziren garaian.

Bertan biltzen zen baita urtean hiru alditan ermandadea, bertaratutako animaliei balore bat jartzeko



Ermandadea

Ermandadea, auzokideen artean eginiko animalien aseguru bat izan zen, batez ere idiena, gerora behiak eta txekorrak ere sartu ba ziren ere. Era honetara Koruetan pertsonen aseguruia ere izan zen.

Hemen **Azatza**, **Koruetan** eta **Mendiolan** ba ziren horrelako elkarteak. **Arientzako** batzuk **Azatza**koan zeuden eta beste batzuk **Mendiola**koan. Aseguratutako animali bakoitzari balio bat jartzen zitzaion, horretarako Azatza urtean zehar hiru alditan, bata Inuzente egunean, Sanantoniotan beste bat, esandako egun eta orduan animali horiek aurkeztu behar ziren ermandadearen aurrean bertan balore bat jartzeko. **Koruetan** ardua hori zeukatenak etxerik etxe ibiltzen ziren animalioek ikusten eta hiru kategoriatan jartzen zituzten, onak, hobeak eta ez ain onak, bakoitzak bere balorea zeukalarik.

Animali horietako bat kendu beharra izanez gero, gaixorik edo apurturen batekin, ermandadeko gutzien artean ordaintzen zen eta bere haragia ontzat emanez gero, bazkideen artean banatu. Kontatu digute behin, horietariko behi bata, oso argaldutakoa bere ugazabak, zerbait zeukalakotan kendu egin nahi zuela eta ermandadetik kobratu, Gainontzekoen ustetan goseak jota zegoen zeren ittuako amaraunak ere janda omen zeuzkan eta horrela ezin ba gorputz ederrik eduki. Ermandadekoeren artean erabaki zuten norbaitek erosi nahi ba zuen ere, enkantean jartzea, diru gehien agintzen zuenak berarentzat izango zuelarik behia. Bazkideak horretara animatu alde ardoa jarri zuten egun horretan. Zerbait agintzen zuenak ardo trago bat zeukan bere gorputzerako.

Ardoa gauza estimatua izanda, ardo trago baten truke dirua eskaintzera lehenengo ausartu zenak, gutxien zeukana nonbait, eta larriak ikusi ei zituen beste inork ez zuela ezer esaten eta.

Gerora bai, gerora beste batzuk ere animatu ziren eta behi hori

Azatza etxez aldatu zen eta urte askotan bizi gainera.

Gosea dela eta, gorriak ikusitakoa bazen ere, ez zuen izan gaitzik.



Elizaurrera bueltatuta, elizpe barrutik dagoen atetxotik **Torrena** aldera egingo dugu, bertatik etortzen bai ziren gaur bila goazen baserrietako biztanleak elizkizunetara. **Pastorienetik** behera, **Urkulu** etxe berriaren ondotik **Elizoste** izan zen lekutik behera **Añabarta**rantz joko dugu, Gaurko presako bidea gurutzatu eta bertan ikusiko dugu/genukeen ezkerretara. Gutxi badira ere, oraindik badaude bere arrastoren batzuk bertan.



Añabarta noizbait tabernatxoa ere izango zen, idatzi batzuk horrela erakusten dute. Bertan bizi izaten azkenak, **Ugastegiko** Inazio pastorienak izango ziren, beraien ardiekin batera negua pasatzen.

Urkulu errotaren bila jarraituko dugu, bidea haxe da eta. Goitik behera eginez. bereala **Aldaixena** baserria ere ezkerrean utziko dugu, seguruenik Pedro ikusiko dugu/genukeen larrainean. Baina orain datoz komeriak, urak ez digu uzten aurrera jarraitzen eta.

Aurrera zuzen jarraitzerik bageneuka, **Barruko iturritik** datorren errekatxoa zeharkatu eta bere ondotik jarraituko genuke **Sanantonio** edo **Jardineraino**, eta bertan Zuaturako bidegurutzera ikusiko genuke, aurrera jarraituta, **Aranerrekako** askak, **Beheko iturri** metal ur iturria bideko munan, **Arruatik** datorren bide zidorraren zubitxoaren ia ia parean. Eta handik gutxira ikusiko genuke **Urkulu** etxea eta errota. Behera ezin dugunetik egin, hemen bada/zen eskuinera bidegurutze bat eta bertatik jarraituko dugu, gainaldean **Okinekoo** baserria ikusiko dugu/genuke. Urtegia egin zenean bertan Eulali joskina, eta Gregorio bere anaia bertan bizi ziren.



Aurrera jarraitu eta **Sarbiarte** baserria zenaren aztarnak ere eskuinetara utziko ditugu, berau hustu zenean Pedro eta Mari Tere beraien hiru alabekin bizi ziren bertan baita Pedroren beste bi anai ere.

Bidean jarraituta **Zelaikoa** ere gainaldean utziko dugu, eta bere etxe aurretik **Marrukueneko** bidegurutzera joko dugu. **Zelaikua**, lau uretarako teilatua duen/zeukan etxe kuadro galanta da/zen, eraberritua, bertan Juanito eta Eulali beren seme alabekin bizi ziren alde egin behar izan zuten garai hartan.



• Urkulu eta bere errotoako harria

Marrukuena, Azatzatik Koruetara doan bidean **Zelaiko**rako bidegurutzeari izena ematen dio/zion baserria izan zen, gerora berriz, apea eta basoko egurren karga-leku erara erabiltzen den/zen zabal gunee bat.

la hankak bustita gabiltza bide zaharrok ibili guran, baina aurrera egingo dugu **Iraban**-lautik **Korueta** aldera. **Irabanen** urtegia ailegatu zenean Migel bere familiarekin bizi zen, bere anaia zen Boni ere bai. **Irabanen** dago/zegoen **Arientzarako** bide gurutzeari, **Korueta**ra bide berria egin ba zen ere, Arientzara gurdi bideak luzaroan iraun zuen, 1953 arte ez zen harriztatu **Iraban-zelai**ko aldatsa, eta horrekin izaera aldatu ez bazitzaion ere, lokatz guneeak behintzat, gutxitu zitzaizkion. Trilladorea bertatik eramateko, puntako beste idi pare baten beharrea aurkitzen ziren **Arientza** aldeko garai lanak burutu ahal izateko.



• Zelaikua

Bide egokirik ez zegoenez **Iraban**era ateratzen zuten **Arientzako**ak esnea **Korueta**ko esnezaleak jaso zezan. Bestalde, 1936an On Simon atxilotu zutenean oinez eraman zuten **Iraban**eraino kotxea bertan zegoen eta. Beste behin, 1953an **Etxebarriko** ezkontzako gonbidatuak otsailean oinez joan ziren **Arientzara**, autobusa bertan utzita.



• Iraban

Azken adibide bat: Joxe Mari Madinabeitia promotore zela, fabrikara lanera hasi ziren inguruko mutilen artean DKW bat erosi zuten atzera aurrera ibiltzeko, baina hau ezin zan **Arientzara** joan ganorazko biderik ez zegoelako. Horregatik **Iraban-zelai** barrenean “kaxetie” eraiki zuten autoa edukitzeko.

• Donostira 85 km harria

Iraban atzera utzi eta bide bazterrean **Arruara** doan bide gurutzetik 10 metrora SS-85 jartzen duen km harria daukagu. Gaur egun etzanda dago, urte erdi bistan eta beste erdia ezkutuan, denbora baten bide nagusia izan zenaren lekuko garbia.


Manuel kaminero

Koruetarako bideak zeukan kategoriagatik, diputazioa arduratzen zen bera zaintzeaz eta horretarako bere langileak zituen "kaminero" lanetarako.

Entzunda edukiko duzue hainbat gerriko mini eta erreuma kontuei kamineroaren izerdiaz minberatutako unea igurzteak on egiten diola, baina untura hori ona bada ere, oso, oso zaila dela aurkitzea.

Hemen Manuel kaminero, izan zen horietako bat, **Marulandakoa** zen eta beste bide batzuen artean **Korueta**rako bide izkinak eta arekak garbi edukitzea bere ardura izan zen urte askotan. Hamarretako ordua behintzat ondo zaintzen zuen eta bere lanabesak, aitzurra, aihotza, artazi handi batzuk tartean, sasi artean gordeta utzi eta gero **Aranera** joaten zen patxada askoan. Eta bertan behin:

- Ze Manuel nahiko lan eginda?
- Beno,.... ordaintzen digutenagatik.
- Zer ba? Gutxi ordaintzen dotzue ala?
- Bueno.... Egiten dugunagatik....



Koruetarantza jarraituta, aldapa emaldiko urak libratzeko dagoen "kantallan" hasten da, hauxe da eta punturik baxuena, baina eleiza ingurua gero bisitatuko dugunetik, **Matxiniturri** parien **Torrealde** aldera egingo dugu, ezkerrera, **Arientza** aldeko **Goiko bidea** ailegatzen den pare horretan. **Arrua**, **Torralde gaina** eta **Olalde** esaterako gaur egun Urtegiko irlan gelditu dira. Gaur uraren maila behean dagoenetik, kanala zeharkatu eta bertatik bueltatzea emateko aukera izango dugu.

• Matxiniturrira bide zaharretik,...

Gero **Lizartxueta**tik, **Mendialdai** aldera jarraituko dugu, **bide berri**arekin topo egin arte. Bidean, urtegiarekin desagertutako hainbat txoko erakusten duen egurrezko habe eta argazkiz osatutako oroigarria ikusi ahal izango dugu.

Bide barritik, hala izango zen hau noizbait ere, **Beterri**ra joko dugu, gaurko presako bidea utzi eta behera zahar-pozu aldera egingo dugu, Baina orain ere urak ez digu aurrera egiten utziko

Beterri

Jarraitzerik izango bagenu **Zahar-pozu** ondoan aurkituko genituzke ur askak bidegurutzean, Ezkerretara hartuko genuke **Uzahar txiki**, **Uzahar Haundi** edo **Barruteira** joateko. **Urkulukoak** ere hemendik joaten ziren oinez etxera, autoa **Uzahar txikin** utzita.


Urkuluko etxe ondotik pasatzerakoan sarri entzun ahal izango genukeen errota hotsa, batez ere goiz aldean, gaua aprobetxatzen bai zen malatua urez betetzeko. Paraje hauek urak hartu zituenean, bertan Mariano errotaria zenaren alarguna, Eugeni, bere seme alabekin bizi zen. **Barrutei**, etxea erortzen hasita zegoen, azkenerako ez zen inor bizi. **Uzahar txikin** ere inor ez zen bizi nahiz eta bertako semeek egunero bertaratzen ziren eta **Uzahar haundin** Prudentzio eta Maxima ikusteak ez ginduke harrutuko, bertan bizi izan ziren azkenerarte eta.

Zubillatxuetara igo nahi izanez gero **Barrutei**tik behera joan eta erreka gurutzatu ondoren, bertara igoko genuke, **Ametzola** aldera, eta handik nahi duenak **Txurlekura** aurrera jarraituta edo **Urrexolara** eskuinetara gora jarraituta .

Zahar-pozu ondoko bidegurutzean eskuinetara eginda Lehenengo **Dixatz** aurkituko genuke, Bitoriano edo bere aita brusa eta guzti idi pareren batekin ikustea ez litzateke harritzekoa izango, idi tratuan feriaz feria ere ibiltzen ziren eta. Pilar bere andrea, bere seme-alaba, bere aita, osaba eta anaiekin batera bizi ziren hemendik atera zituzten arte.







Toponimiak



- 1.Urkulu, 2.Dixaguen, 3.Siondo goikoa eta behekoa, 4.Dixatx,
- 5.Errotazahar, 6.Ubao, 7.Mendikurtza eta Moxuena, 8.Arbe,
- 9.Goikoerota, 10.Markitegi, 11.Igeri pozue, 12.Atxorrotx,
- 13.Urbaltz, 14.Ikaran, 15.Soaldatz, 16.Abola, 17.Barrengarro,
- 18.Umeretx, 19.Santaines, 20.Floresko erreka, 21.Ametzola,
- 22.Suertiek, 23.Zubillatxueta, 24..Atalaundi, 25.Erkoitze,
- 26.Galarrixa, 27.Basetxi, 28.Uarkarte, 29.Presie 30.Barrutei,
- 31.Uzar haundi, 32.Uzar txiki, 33.Zarpozue, 34.Mendialdai,
- 35.Telleixa, 36.Torreoste, 37.Beheko iturrix, 38.Olalde,
- 39.Aranerreka, 40.Askak, 41.Arrua, 42.Torrealde,
- 43.Lizartxueta, 44.Bide barrixe, 45.Mendietxe, 46.Etxebarri,
- 47.Dantzalekue/Koruetazelai, 48.Uxarte, 49.Solohaundi,
- 50.Arane, 51.Korueta eliza, 52.Korueta eskola,
- 53.Matxiniturri, 54.Emaldixe, 55.Arantzategi, 56.SS-85 kilometro harria,
- 57.Goiko bidie, 58.Irabanzelai, 59.Iraban,
- 60.Marrukuena, 61.Zelaihua, 62.Sarbiarte, 63.Okinekue,
- 64.Jardine/Sanantonio, 65.Aldaixena, 66.Añabarta, 67.Elizoste,
- 68.Sorginmendi, 69.Azatzako eliza, 70.Sargarai, 71.Otalora



• Bi Siondoak

Aurrera, behera jarraituta erreka zubitik pasatu eta bi **Siondoak** aurkituko ditugu, agian **Siondo beheko** Gregorio bere R-6arekin errebueltatan bozina joka lanetik etxera pasatzen sumatuko dugu. Bere andrea eta seme alabekin bizi zen bertan.



• Siondo Goikoa

Siondo goikoan Joxe Mari abarkekin dotore jantzita etxeko atarian zutik ikusiko dugu, alargunduta bere anai-arrebekin bizi zen hemen uholdeak atera zituenean. **Siondotik** gora, aurrera eginez gero **Dixauenera** joko genuke.

Dixatxko pare horretan, badaukagu beste aukera bertako bidegurutzean eskuinetara eginda, **Santa Ineseko** hariztira joateko bidea hauxe da eta, **Floresko erreka** gurutzatu zubitxotik eta bertan da. Inguru honetan ba ei zen eliz koxkor bat kanposantu eta guztikoa. Gerora bertan zegoen iturriagatik zen ezaguna baina ateratzen zen ura **Urbaltzekoa** zen. Arrasatekoak beraientzat eraman zutenean auzokoei utzi ziotena.


Santa Inesetik Markiteira jo genezake baita, horretarako ezkerreko bidea hartu eta **erreka handia** zubitik pasatuta, **Errota zaharko** etxe ondotik, estratan gora eginda **Markitegira** iritsiko gara. 1978 eraiki zen urtegia eta ordurarte Errota-zaharren Jose eta Pakito mutikoak beraien gurasoekin bizi izan ziren.



• Errotazar eta bertako zubia




• Santaineko iturria, Siondo



• Ubaio baserria

Santainestik, Ubaora edo **Mendikurtzara** joateko aukera ere badaukagu, baina ea beste bideren batetik gerturatzen garen.



Gure 9. ibilaldi hau, ezinezkoa litzateke irudimenari eta istorioei kasu egin ezean. Ibili nahi ditugun bide asko betirako urak tapatuta aurkitzen ditugu eta. Nork pentsatuko zuen **Erreka haundixe** esaten zitzaion hura hainbeste hasiko zenik.

Erreka aundixe



Ur askoko erreka izan zen beti (ikusi 8. Ibilaldia) **Ugaztegitik Arben** behera datorrena. Hori ba zekiten **Arrasaten** ere, eta gero eta ur gehiago behar zutenetik 1956.urtean **Urbaltzeko** iturria, erreka honetako emankorrena, desbideratu egin zuten eta bertako ura eraman. **Korueta**ko biztanleak eta batez ere **Beterri**koak antzeman zuten bai, hain beraiena zen erreka ura gutxitu egin zitzaie. Ondoren errotan ere, malatua beteta behar izaten zuenez, noiz eho kalkulatu beharrean izaten ziren, izan ere gero eta gaitzagoa izaten zen urte sasoi luzetan errekan behar adina ur izatea.

Beterrikoak, beheko auzogune hau, etxerako ura ere **Dixaguen** aldeko iturritik ekarri behar izan zuten, eta metal asko zeukanez, **Zahar-pozu** ondoan egin zituzten arketa batzuetatik pasatzen zuten ur hori pixka bat garbitzeko kontutan.

Ezer gutxi jakingo zuten garai artako jendeak, gerora etorriak zenaz, ur iturriak ez ezik bizilekua ere kenduko ziotela, bailara osoko ur beharrak asetzeko.

Presako ur ertzetik ahal ba da eta bestela goratxoagotik, **Korueta zelaitik** aldatz beheara gogorrean datorren **Medikurtzako** bidea hartuko dugu.

Aldatz erdi inguruan, **Murgitik**, **Urtixiko** etxe azpitik pasatu eta **Uxarteko** etxeazpitik datorren eta Santainesera doan bide zidorrak gurutzatzen du/zuen bide hau. Beheraino jaitsi eta laster helduko gara **Mendikurtzara**, galtzada harritan gora Azkenengoz Pedro txiki bere familiarekin bizi da/zen bertan. Bi etxe elkarren ondoan ziren/dira, bestea **Moxuena** izenekoa aspaldian utziki dagoena. **Etxegarai** aldera ganadu aska luze bat dago bertan **Zaraiara** begira.



Bideak ganbarako zubi azpitik pasatu eta aurrera jarraitzen du, beheara, erreka aldera. 100 metro arren Ubaio dugu ezkerrean eta bertara dator **Santainestik** guri bide bat. Azkenetara **Ubaio** ez zen inor bizi. Bidean aurrera jarraituko badugu/bagenu, **Ikarango** zubian pasatuko genuke **Arbetik** datorren erreka eta **Soaldatz** ingurutik jarraituz **Arbe** edo **Ugastegira** joatea edukiko genuke.

Arrantza kontu batzuk

Ugasteittik Arbera bittartien normalien etzien egoten amorrañek, bertara arrautzak jartzera igoten zien sasoi eziz. Amorrain haundixek izeten zien eta arrautzak jarritte gero, berriz beheara jeisten zien edo bertan hil.

Arbetik beheara errekiek ur gehixau erueten euen eta bertako potzuetan jentie bañau itten zan eta igeri itten euen, igeri potzu honeittan ikesten zan igeri. Arbetik Urbaltzerako tartien 3 potzu eozen baiñe amorrañik etzan arrapetan potzu horreittan ur asko egoten zalako. Urbaltzetik beheara barriz, amorrañek arrapetako horma zuluek, harri artiek eta zubipeiek izeten zien onak. Ubaio ondoko Ikarango zubixe, Errotazarreko zubixe eta Siondora joateko zubixek eozen tarte horretan. Errotazarreko zubixe oso politte zan, harriz einddako arku formadune, Siondokue barriz haundixae zan eta porlanezkue, baiñe astuek eta jentie gañetik pasetan zien arren, gurdixen errekie kurtzaute pasetan zien.

Amorrañek eskuz harrapetan zien, aparejo edo kaña barik. Zuluetan edo harri artietan eskue sartzen euien eta amorraña brankeatetik heldute ataraten euien. Etzan errexa izeten, lelengo amorrañe euela somau eskero, zuloko txokora eruen eta han harrapetan zan. Zuluue estue bazan eta buruz aurrera sartute egoten bazan, buztanetik tiretu eta gero brankeatetik heltzen saiatzen zien. Behin edo behin susto galantak hartutakoren batzuk be bazien, amorraña biherrien sugie egoten zaniien.


Sarboeskaiuek harrapetako kristalezko botellak erabiltzen zien. Botellei ipurdixe apurtuta, baiñe ez ipurdi dana, barrura sartzen zan puntie bakarrik, hola enbutu forma horrek, eskaiuei sartzen izten eutzien baiñe ez urteten. Eskaiuek harrapetako beste modu bat sakuekin zan. Gari sakuei bi makila jarri eta ur barruen eruenda eskaiuek barruen sartzen zien eta sakue kanpora ataratakuen, ura iragazi itten zan eskaiuek barruen geratzen zielarik. Angirak barriz, eskuz eta tenedorakin harrapetan zien. Eskuz harrapetako trapua erabiltzen zan angira ez labanketako. Tenedora barriz, goitik behera angirari sartzen zitzaion. Amorrañek kolore desberdiñe eukitten euien lekuen arabera. Ugasteira arrautzak jartzera igotakuek, amorrain pinttuek izeten zien eta oso haundixek gañera. Urbaltzetik behera, Ubao eta Errotazar inguruen amorrañek baltzak izeten zien, seguruenik mimetismoa izengo zan horren arrazoia, Urbaltz izenak dixon moduen ur baltzetan ikusteko gatxauek izango bait zien. Dixaatx eta Ziondotik behera amorrañek pinttuek izeten zien. Siondotik behera etzien joaten koruetarrak amorrañetan, hortik behera azatzarrak ibiltten zien gehixau. Ezin dugu pentsatutako bidetik jarraitu, berriro ere urak eragozten digu eta. Asfaltozko bidean atzerantz eginda ibilaldi honi bukaera duin bat eman alde **Korueta**ko **Dantzalekura** igoko gara...

Dantzalekua



Korueta zelaiko haritzia, Garai baten **Gorordo** aldean basoak zituzten baserritarren landareak ateratzeko mintegia izandakoa ei da, izatez beraz, partikular batzuen, Koruetaoak ez direnak ere bai tartean.

Bertara ekartzen zituzten **Sakon aundixetako** tabloi eta ikatzak airez, kablean zintzilikatuta (ikus 8. Ibilaldia). Eta bertan dago baita auzoko ferratokia.



• Dantzalekua, Korueta zelain

Hamaika bider Santixauetako dantza lekua izen da harizti hau. Auzoko jaiak izaten ziran eta hementxe egoten zen bola lekua ere.

Bola tokiak dozena bat metro luze eta pare bat zabal izaten zituen. Luzera horretan eskuinaldean bola bertatik joan beharreko 10 bat cm inguruko altueran sendatxo batekin. Hasieran ohol bat edukitzen zuen eta bukaeran hiru txirlo ilaran. Jokalariak bola, egurrezkoa izaten zena, jaurtitzerakoan lehenengo ohol jo behar izaten zuen nahi edo ez, eta gero sendatxotik bideratuta txirloak. Ohola jo ezean “Ohol hutz” izaten zen eta botatako txirloak ez zuten kontaktzen.


Bola jokoan parte hartzeko jarri beharreko txanponak ohol ondoan zegoen arbola ipurdian pilatzen ziren, eta irabazleak beretzako jasotzen zituen.



Apustuak edo trabesak berriz, berbaz edo askotan uluka egiten ziran “Baten parra, bi ezetz” edo antzerakoak aireratuta, norbaitek enbidoa jasoko zuen esperantzarekin. Soinua ere ezinbestekoa zen jaietan, eta soinujolearentzat, arbola baten arrimura adarrekin apainduta kioskoa prestatzen zen altuera batetan, eta soinujoleak bertara igota erakusten zuen bere abildadea. Bigarren eguneko bazkal osteko erromeria **Dixatz**ko etxeburuan izaten zen eta gero berriro **Korueta zelaira** bueltatzen ziren Abemariatakoak jo arte. Txaparro karameleroa ere ezin bestekoa zen Santixauetan. Jendea berriz, erruz etortzen zen inguruko auzo guztietatik, baita **Zubillaga** edo **Araoztik** ere.

Korueta zelairaino ailegatzten da GI-3131 errepidea. Bertatik bueltatuko gara **Otala** aldera baina ez aurretik eliza inguruak bisitatu gabe. Ea norbait aurkitzen dugun bertan, garai bateko kontuak entzun gura ditugu eta.

Koruetako **eliz-ondoa**, auzoko erdigunea izan da eta da. Bertan dago Santiagori eskainitako eliza, **eskola**, **abade etxea**, **maistru etxea** eta **Arane**.



Koruetako eskola



Koruetako eskola 1978an itxi zen betirako, urtegiak ekarri zituen desjabetzeen ondorioz neska-mutiko askok ere alde egin behar izan zutelako neurri handi batean. Azkenengo irakaslea Socorro Mayo izan zen, eta azken ikasleak. **Arientza, Korueta, Azatza** eta, **Larreñuko** dozena bat neska mutiko.

Eskola hau 1946. urte aldera eraiki zuten, baina aurretik ere bazegoen eskola **Koruetan**, maistru etxe azpian hain zuzen . **Korueta** auzoa handia izanda beti, esaerak esaten zuten legera.; bi herrik: **Beterri** eta **Goierri** eta bi auzok: **Ugastegi** eta **Urrexolak** osatutakoa. Garai batzuetan 40tik gora neska- mutiko ibili izan ziren eskolan batera. Irakasleak egon izan ba dira ere, Abadeak ere maistru lanetan jardun zuten inoiz.

Maistro etxe honek gehiagorako ere eman du bere historian: Bertan egon zen barberia bat, eta baita denda koxkortxo bat ere, Pakana. Gerora auzo elkarteak ere bertan egon zen. **Arane** ere **eliz-ondoan** dago, eta auzoari eman izan dio berea. bertan egon bait da taberna eta merienda tokia, bertan auzoko telefono publikoa eta bertakoek bildu eta saltzen zituzten kalean inguruko etxetako esneak.

Koruetan lehenengo autoa Aranekoa izan zen, eta esne errepartoa egunerokoa izaten zenetik egunero jaisten ziren kaleraino, horrekin batera errekadista eta autobus zerbitzua ere eskainiz. Zerranda polita da, Aranen izan diren autoena, aipatzearen lehenena, egurrezko gurgilduna, eguna hasterako idiekin larrainetik atera behar izaten zena aldapa goienera jarri arte, handik aurrera goitik behera **Irabanera** bidean arrankatu eta kaletik buelta arazorik gabe egiten zuena.



• Koruetako eskola



• Eskola baruan...




Ibilbidearen mapa

wikiloc zintzilikatua.

Ibilbidearen deskribapena



- **Luzera:** 6,6 km
- **Zailtasun maila:** Ertaina
- **Altuera minimoa:** 420 m
- **Altuera maximoa:** 370 m
- **Denbora:** Gutxi gora behera 2:30




- **Ibilbidea interneten:**

<https://eu.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=19872324>

<http://www.geo.euskadi.eus/comparador-de-ortofotos/s69-geocont/es/>





 **Larrino auzoa**



 Sargari

 Añabarta

 Aldaixena

 Okinekue

 **Azata auzoa**

 Sarbiarte

 Zelaikue

 85 Km harria

 Kanala

 **Arientza auzoa**

 **Korueta auzoa**

 Monumentua

 Dantzalekua

 Mendikurtza

 Ubao



Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

Bibliografia: **Aretxabaletako 2. Ibilbide historikoa, Aretxabaletako 8. Ibilbide historikoa**

Argazkiak: **Aretxabaletako argazki artxiboa, Xabier Arregi, Gorka Madinabeitia, Julen Abasolo, Socorro Mayo, Jose Luis Errasti eta "Gure Gipuzkoa"**

Eskerrak: **Felis Eraña, Juan Arenaza, Andoni Uribetxebarria, Jesus Mari Errasti, Mari Tere Uribetxebarria, Puri Altube, Jose Luis Altuna**



Aretxabaletako
Udala



loramendi

Durana 11 (Udaletxe Zaharra)
20550 · Aretxabaleta · Gipuzkoa
Tel.: 943 77 09 70 / 685 75 67 29
loramendielkarte@gmail.com